



JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILA
Justizia Sailburuordetza
Justizia Administrazioako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS
Viceconsejería de Justicia
Dirección de la Administración de Justicia

Oharra: Bake Epaileek ezkontza zibilak egitea, Justizia Zerbitzu Publikoaren eraginkortasunaren arloko neurriei buruzko urtarilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoa onartu ondoren.

1. SARRERA

Bake-epaitegietan dauden erregistro zibilak, eskuordetutako udal-erregistro zibilak, bulego laguntzaile bihurtzen dira Erregistro Zibilari buruzko uztailaren 21eko 20/2011 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren bidez.

Bake-epaileak Udal Erregistro Zibil delegatuaren arduradun izateari uzten dio, eta ez du funtziorik Erregistro Zibilaren arloan.

Erregistro Zibileko bulego laguntzaileek ez dute arduradun propiorik izango, eta beren eginkizunak betetzeko, Bulego Nagusiarekin eta haren lurralde-eremuko arduradunarekin izango dute harremana.

Bake-epaileak ezkontza zibila egiteko eskumena zuten agintariak ziren soilik, Kode Zibilaren 51. artikulua eta hurrengoaren arabera eta uztailaren 21eko 20/2011 Legearen 58. artikulua arabera.

2. URTARRILAREN 2KO 1/2025 LO ONARTZEA, 2025EKO APIRILAREN 3AN INDARREAN DAGOENA.

Lege Organikoak aldatu egin ditu Kode Zibilaren 51. artikulua eta hurrengoak eta uztailaren 21eko 20/2011 Legearen 58. artikulua, eta bake-epaileak kendu egin ditu ezkontza zibilak egiteko eskumena duten agintaritzatzat.

3. NABARMENTZEKO GAIAK

Ezkontza zibilak bulego nagusietako egoitzan bertan egin ahalko ditu bertako arduradunak, notarioen aurrean egin ahalko dira, alkateen aurrean edo eskuordetzen dituzten zinegotzien aurrean.

Ezkontza zibilak, baldin eta ezkontza baimentzeko ebazpenak bake-epailea jasotzen badu agintaritza egileztat, eta 2025eko apirilaren 3a baino geroago adierazi badira, beste edozein agintari posibleren aurrean egin beharko dira.

Ondore horietarako, interesdunek, beharrezkoa izanez gero, ezkontza baimentzeko ebazpena eman duen notarioari edo Erregistro Zibileko arduradunari jakinaraziko diote ezkontza egiteko aukeratutako agintari berria, Erregistro Zibileko notarioak edo arduradunak agintaritza egilearen aldaketa onar dezan, legezko aldaketaren ondorioz.